



Udazkeneko zikloa / Ciclo de otoño

HITZALDIA / CONFERENCIA

Juan José Barahona

VIVE L'EMPEREUR!

Asteartea / Martes **19:00**

ABENDUAK 3 DICIEMBRE

SARRERA DOAN, LEKUAK BETE ARTE
ACCESO GRATUITO HASTA COMPLETAR AFORO

Arabako Arma Museoa / Museo de Armería de Álava

Fray Francisco ibilbidea, 3 / Paseo de Fray Francisco, 3

01007 Vitoria-Gasteiz

945 18 19 25

museoarmeria@araba.eus

VIVE L'EMPEREUR!

Paris, IV. urtearen *Mahaxtearen* lehen egunak, edo hala nahiago bada, irailaren amaiera eta 1795eko urriaren hasiera. Konbentzioa boterea Direktorioari emateko prestatzen ari da; izan ere, III. urtean onartu berri den Konstituzioak gobernu exekutiboa mota horretakoa izango dela jasotzen du. Baina ez dirudi botere eskualdaketa lasaia izango denik, eta tentsioa nabarmena da, bai Konbentzian bertan, eta, jakina, baita Parisko kaleetan ere. Etorkizuneko ordenaren postulatu jakin batzuk onartzen ez dituen jende gehiegi dago. Ez dute begi onez ikusten, esaterako, Zaharren Kontseiluaren eta Bostehunen Kontseiluaren bi heren aurreko Konbentzioko kideentzat izatea, edo jakobinoek lortu zuten sufragio “unibertsala” alde batera uztea eta berriz ere, burgesek nahi bezala, errolda sufragiora ezartzea. Eta oposizio horretan, denetik dago: nagusitasuna galdu duten jakobinoetatik hasi eta Antzinako Erregimenaren nostalgikoetara, zeintzuek monarkia berrezarztearekin egiten baitute amets.

Mahaxtearen 11. eta 12. egunak. Iskanbila gero eta handiago da. Kaleetan nahasmena da nagusi, eta geroz eta gehiago eta ozenago entzuten dira “Kanpora Konbentzioa!” oihuak. Konbentzioa egunero elkartzen da, baina ez du neuririk hartzen. Sablons lautadan kanpaturik dagoen soldadu talde bat etorrarazi besterik ez du egin. Kanpoaldeko zalaparta Asambleara ere iritsi da. Erantzuna eman beharra dago. Orduan, diputatuetakoa batek pertsona baten izena aipatzen du, zeina gai izan daitekeen egoerari aurre egiteko. Brigada jenerala da, frantsesa kasualitate hutsez (Kortsika, haren jaioterria, genovarra zen hura jaio zen urtean), eta oraindik ere ezezaguna, baina zenbait arma zerbitzu egindakoa, esaterako, Toulonen. Napoleón Bonaparte du izena.

Mahaxtearen 13. eguna. Monarkiaren aldekoek hainbat egun daramatzate ekintza bat prestatzen, eta Konbentzioaren aurkako erasoa gauzatu dute. Bonapartek gogor erantzun die, eta azken liskarra Saint Honoré kalean gertatu da: Monarkiaren aldekoen erasoari aurre egiteko, kanoiak metrailaz betetzeko agindu die artilleriei eta kale osoa hartu dute, ezker-eskuin. Hamabost minututan amaitu da borroka. Gertatutako guztia aztertzen badugu, borroka ez du bi ordu ere iraun, eta 400 soldadu eta herritar hil dira. Mendean hartu ditu matxinoak Konbentzioak, eta gure jeneralak ondo merezitako ospea irabazi du.

VIII. urteko *Lainotearen* 18. eguna (1799ko azaroaren 9a). Beste estatu kolpe bat eta berriz ere protagonista bera, Napoleón, zeina Egiptoko kanpainatik bueltan etorri den, baina oraingoa ez matxinoak mendean hartzeko, baizik eta matxinadaren buru izateko. Kaleetan txalotu egiten dute eta ados ez daudenak isilarazi; Kotsulatua ezarri dute. Frantziaren etorkizuneko hurrengo hamabost urteetako historia une horretan hasi da. Hau da garai horren historia. Hau da enperadorearen historia, Napoleón Bonaparterena.

Paris, primeros días de *Vendimiario* del año IV o, si se prefiere, finales de septiembre y comienzos de octubre de 1795. La Convención se prepara para traspasar sus poderes al Directorio, la forma de gobierno ejecutivo que contempla la recién aprobada Constitución del año III. Pero el traspaso de poderes no parece que vaya a ser tranquilo y la situación es tensa, en la propia Convención y, por supuesto, en las calles de París. Hay demasiada gente que no acepta determinados postulados del futuro orden, como la idea de que dos tercios de los escaños del Consejo de Ancianos y el Consejo de los Quinientos queden reservados para miembros de la anterior Convención, o que se olvide el logro jacobino de un sufragio “universal” para volver al deseo burgués del voto censitario. Y en esta oposición hay de todo: desde jacobinos que han visto perdida su primacía hasta nostálgicos del Antiguo Régimen, que sueñan con la restauración de la monarquía.

11 y 12 de *Vendimiario*. Los alborotos crecen. En las calles solo hay desorden y el grito “¡Abajo la Convención!” resuena cada vez más y con más fuerza. La Convención, reunida a diario, no toma medidas, fuera del llamamiento a un pequeño contingente de soldados que acampan en la llanura de Sablons. El tumulto exterior llega a la propia Asamblea. Se requiere una respuesta. Entonces un diputado cita un nombre para encarar la situación. Es el de un general de brigada, francés por casualidad - la isla que le vio nacer, Córcega, era genovesa hasta un año antes de que él naciera - y aún desconocido, pero que ya había prestado algunos servicios de armas como, por ejemplo, en el sitio de Toulon. Ese hombre es Napoleón Bonaparte.

13 de *Vendimiario*. Elementos realistas que llevan preparando su actuación desde hace varios días, lanzan un furibundo ataque contra la Convención. La respuesta de Bonaparte es contundente, con un último episodio en la calle Saint Honoré. Para reprimir la carga monárquica, ordena a sus artilleros cargar con metralla los cañones y procede a barrer de izquierda a derecha todo el ancho de la calle. En quince minutos el combate ha terminado. Si contemplamos todo su desarrollo, la lucha no ha durado ni dos horas y ha costado la vida a 400 personas, entre soldados y ciudadanos. Revuelta sofocada para la Convención y prestigio más que merecido para nuestro general.

18 de *Brumario* del Año VIII (9 de noviembre de 1799). Otro golpe de estado y otra vez el mismo protagonista, Napoleón, que vuelve de su campaña en Egipto, pero esta vez no para sofocar la revuelta, sino para encabezarla. Aclamado en la calle y con las voces disonantes acalladas, se instaura el Consulado. Los siguientes quince años del devenir de Francia comienzan a escribirse en ese instante. Esta es la historia de ese período. Esta es la historia de su emperador: Napoleón Bonaparte.

Hitzaldia - Conferencia

Abenduak 3 diciembre • 19:00
Asteartea / Martes

VIVE L'EMPEREUR!

Juan José Barahona

Urkideko irakaslea • Profesor Urkide



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava